

EUROA. Europako dibisak beherako joera areagotu du, Alemaniako eta Frantziako ekonomia apal hazi dela ikusita eta inflazio altua erakusten duten datuek bultzatuta. Hala, 0,85 dolarrera heldu da, azken sei hilabeteetako kotizaziorik apalena.

Euroa amildu egin da berriz, inflazioak gora egin eta ekonomia apal hazi delako

Europako Banku Zentralak %4,5ean eutsi zien atzo euroaren eremuko interes tasei

Erredakzioa | BILBO

Euroak eutsi egin dio aurreko egunetatik zekarren kotizazioaren beherakadari, dolarren aldean. Europako dibisa azken sei hilabeteetako baliorik apalena heldu zen atzo bigarren egunez jarraian, eta aste hasierako 0,88 dolarretik 0,85 dolarrera jaitsi da. EBZk truke ofiziala 0,8585 dolarretan ipini zuen.


Adituek atzo ezagututako azken datu makroekonomikoei egotzi diete euroaren azken ahulaldia, hain zuzen Alemaniako eta Frantziako ekonomia ia ez direlako hazi, eta, aldiz, inflazioa igo egin delako.

Europako Banku Zentralak (EBZ) esku hartuko duen zurrumurrua zabaldu zen merkaturtan, euroari laguntzeko dibisa merkaturtan. Franfurteko erakunde ekonomikoak atzo egin dako bilkuran diruaren prezioa bere horretan uztea erabaki zuen, baina ez zuen balizko esku-hartzeari buruzko argibiderik eman. EBZk iazko abenduan burutu zuen horrelako azken operazioa merkaturtan, euroa orduan 0,86 dolarretan kotizatzen zenean.

Inflaziorik altuena eurogunean

Euroaren eremuko inflazioa %2,9ra heldu zen apirilean, hau

Euroaren trukea



da, euroa 1999aren hasieran sortu zenetik izandako tasarik handienara. Petrolioaren garestitzeak zerikusi zuzena izan du prezio igoera horretan.

Inflazio tasa horri hazkunde ekonomiko gero eta apalagoa gehituta, EBZko agintariak ez dute lan samurra euroguneke diru politika bideratzeko, aldi berean inflazioari aurre egiteko eta ekonomia suspertzeko neurriak hartu beharrean baitira.

Petrolioaren prezioaren eragina

Testuinguru horretan, EBZk interesak %4,50etik ez mugitzea erabaki zuen atzoko bilkuran eta, itxuraz, euroari laguntzeko mugimendurik ere ez zuen egin finantza merkaturtan.



ARNE DEPERT / EPA

Euroa azken hilabeteetako behenean dago, inflazioaren eta ekonomiaren moteltzearen ondorioz.

Europako diru erakundeak behin eta berriro azpimarratu du bere eginkizun nagusia euroaren eremuko prezioen kontrola bermatzea dela. Helburu hori erdi epera lortzeko bidean dagoela uste du banku zentralak,

eta urtearen bigarren erdialdean zehar inflazioak joera aldatu eta aurreikusitako %2ko tasara hurbilduko dela iragarri du.

Hala ere, petrolioaren igoe-rak helburu hori oztopatu egingo duela uste dute adituek,

erregai inportazioen eraginez inflazioa gorantz bultzatzen baitu. Ekialde Hurbileko gatazka dela eta, gainera, petrolioak garestitzen jarraituko duela ohartarazi dute aztertzaile ekonomikoak.

AZKEN DATUAK

HAZKUNDE EKONOMIKOA

Europar motoreen geldialdia

Europako ekonomiaren motore nagusiak, Alemania eta Frantzia, hasiak dira dagoeneko geldialdiaren lehenengo seinaleak antzematen. Aurtengo lehenengo hiru hilabeteetako hazkunde datuek hala erakutsi dute: Alemaniako Barne Produktu Gordina (BPG) %1,6 besterik ez da hazi, aurreko hiruhileko %1,9ko tasaren ostean. Frantzian ere BPGren hazkunde tasa %0,8tik %0,5era jaitsi zen urtariletik martxora. Bi lurralde hauetan inflazio datuak ere jakinarazi zituzten atzo, eta aurreikusitako emaitzak gainditu egin dituzte: Frantziako inflazio tasa %1,3tik %1,8ra igo zen apirilean, eta Alemaniako igoera ere 0,5 puntukoa izan da maiatzean, %3,5era arte, lehen kalkuluen arabera.

MME

Merkataritza motelduz

Munduko Merkataritza Erakundeak, ekonomiaren moteltzea dela-eta, munduko merkataritzaren hazkunde ia zkoaren erdira jaitsiko dela iragarri du. Hala, merkataritza aurtengo %7a bakarrik igoko da eta ia, berriz, %12,5 hazi zen. Gainera, etorkizuna «zailtasun betetako» ageri da, MMEren arabera. Honen aurrean, ekonomiaren liberalizazioa bultzatzea du helburu erakundeak, eta horretarako negoziazioak hasiko ditu azaroan. EEBBek inportazioak gutxitu dituzte, eta honek Kanada, Mexiko eta Karibeko herrialdeetan izango du eragina. Teknologia merkaturtan ere eraginik izango dute, geroz eta gutxiago inbertituko baita.

BURTSA

Europako burtsak beherantz

Euroaren beherakadaren erdian, burtsak egun txarra izan zuen atzokoan. Bilboko burtsak 1,67 puntu irabazi zituen atzo, eta beraz, 1.668,56an geratu zen. Europako burtsak beherantzko joera nabaria agertu zuten. Hala, Parisco CAC 40 Indizeak %1,1 egin zuen atzera eta 5630,74 puntutan geratu zen. Londresko FTSE-100 ere %1,33 jaitsi zen, 5897 puntutan jarritz. Bestalde, Franfurteko DAXak, itxi aurretik joera bera zuen. Salbuespena Madrilgo Ibex 35 indizea izan zen, beherantz joan arren, azkenean %0,06 egin baitzuen gora, 9.632,6 puntutan geratuz. Azkenik, Wall Streeteko merkatua lehen orduetan 100 puntutik gora jaisten ari zen, azken jardunaldietan gora egin ostean.